



Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko apirilaren 6ko EBAZPENA, zerbitzuak haur itsu eta anbliopeak eskolan integratzeko baliabideen zentroetan ematen dituzten pertsona zehatz batzuei aurreko ikasturteetan eman zaizkien zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzen duena.

Martxoaren 1eko 40/2005 dekretuak, ikusteko ezgaitasuna duten ikasleak hezkuntzan integratzeko baliabideen zentroak sortzen dituenak, xedapen iragankorrean zehazten duenez, *"gaur egun beren funtzioak haur itsu eta anbliopeak eskolan integratzeko baliabideen zentroetan betetzen dituzten pertsonak funtzio horiek betetzen jarraituko dute eta, dekretu honetan aurreikusten diren lanpostuak betetzeko deitzen den aukeratze-prozedurak bukatu arte, ez dute gaurko administrazio-izaera galduko"*.

Horren arabera, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 79/2017 dekretuak 10. artikuluan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

LEHENA.-Aurreko ikasturteetan baimendu diren zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzea, haur itsu eta anbliopeak eskolan integratzeko baliabideen zentroetan zerbitzuak ematen dituzten pertsona zehatz batzuentzat.

BIGARRENA.-Haur itsu eta anbliopeak eskolan integratzeko baliabideen zentroetan irakaskuntza-arrazoiengatik 2017/2018ko ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan aritzeko baimena lortu duten eta egoera horretan 2018/2019ko ikasturtean jarraitu nahi duten pertsonak izango dute zerbitzu-eginkizuna luzatzea eskatzeko aukera. (I. eranskina ikusi).

HIRUGARRENA.- Hezkuntza Sailaren web orrian eskura dagoen ezarritako ereduaren arabera egingo da zerbitzu-eginkizuna luzatzeko edo zerbitzu-eginkizun horri uko egiteko eskaera eta pertsonak zerbitzuak ematen dituen ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztuko da.

LAUGARRENA.- 2018ko apirilaren 10etik 20ra bitartekoa (biak barne) izango da zerbitzu-eginkizuna luzatzea edo berorri uko egitea eskatzeko idazkia aurkezteko epea.

BOSGARRENA - Luzatzeko edo uko egiteko eskaera ebazpen honetan ezarritakoaren arabera egiten ez dutenek galduko dute zerbitzu-eginkizuneari jarraitzeko eskubidea eta zerbitzu-eginkizun horri uko egiten diotela interpretatuko da.

SEIGARRENA.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez luzatuko dira zerbitzu-eginkizunak, eskatzaileek martxoaren 1eko 40/2005 dekretuaren xedapen iragankorrean ezarritakoa baldintza betetzen dutela egiaztatutako ondoren. Eman diren luzatzei eta onartu diren uko egitei buruzko ebazpena Hezkuntza Sailaren web orrian emango da argitara, jakinarazpenaren ondorioetarako.

Aipatutako ebazpena argitara eman ondoren, ezin izango da zerbitzu-eginkizuna luzatzeari uko egiteko eskaerarik aurkeztu.



Gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

ZAZPIGARRENA.-Urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 6a

Konrado Mugertza Urkidi
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

**I. ERANSKINA.- IRAKASKUNTZA ARRAZOIENGATIK AURREKO IKASTURTEETAN
ITSUENTZAKO BALIABIDEEN ZENTROETAN ZERBITZU EGINKIZUNEAN ARITZEKO
BAIMENA DUTEN PERTSONAK.**

NANa	IKASTETXEA
014924730	CRI COCHERITO DE BILBAO
05234337C	CRI LA FLORIDA IBT
15938496W	CRI ZUHAIZTI IBT
15941504C	CRI LA FLORIDA IBT
15950840H	CRI ZUHAIZTI IBT
16027747J	CRI COCHERITO DE BILBAO IBT
16248397R	CRI LA FLORIDA IBT
18935956X	CRI COCHERITO DE BILBAO IBT
22724413E	CRI COCHERITO DE BILBAO IBT
22726879G	CRI COCHERITO DE BILBAO IBT
22727963F	CRI COCHERITO DE BILBAO IBT
30567355X	CRI ZUHAIZTI IBT
44138294Y	CRI ZUHAIZTI IBT
71004878Z	CRI LA FLORIDA IBT
72256281X	CRI COCHERITO DE BILBAO IBT
72256924D	CRI COCHERITO DE BILBAO IBT
78863892C	CRI LA FLORIDA IBT